

LEGERIA



La mayoría entra en vigor el 13 de diciembre de 2014. Otras en abril de 2015 o en diciembre de 2016

TAMAÑO DE LETRA

- En envases de más de 80* cm²:
Mínimo 1,2 mm de altura de la "x"
- Envases de menos de 80* cm²:
Mínimo 0,9 mm de altura de la "x"

ALÉRGENOS


Deben destacarse tipográficamente (con diferente color, en negrita, o con distinto tipo de letra).

TIPO DE ACEITE

Se debe indicar si es aceite de palma, de girasol, de oliva...

ETIQUETADO NUTRICIONAL

Se deben indicar las cantidades por 100 gramos o 100 mililitros (para poder comparar productos) y el % que representa sobre la cantidad diaria recomendada para un adulto.



COMPRA ON LINE

La información debe estar disponible también en compras por internet



TODO JUNTO

La información nutricional debe estar en el mismo campo visual, no desperdigada en diferentes caras del envase.


ORIGEN

Obligatorio hasta ahora:

- Miel
 - Aceite de oliva
 - Frutas
 - Verduras
 - Pescados
 - Carne de vacuno
- Desde ahora, además:
- Carne de cerdo
 - Aves de corral
 - Ovejas
 - Cabras

SAL

La palabra "sodio" se prohíbe por ser poco clara. Se debe poner "sal".



CONGELACIÓN

Si el producto se ha descongelado debe indicarse para que el comprador sepa que no puede volverlo a congelar.

"ELABORADO A PARTIR DE..."

Los productos que aparentan ser una sola pieza pero que proceden de varias (saichichas, palitos de cangrejo, etc.) deben dejar claro todos los ingredientes utilizados.

Fuente: Reglamento nº 1.169 / 2011 de la UE.

EL PAÍS

AURKIBIDEA

1. **GAIA:** ZUZENBIDEA.....1 or.
2. **GAIA:** ESTATUKO ELIKADURA LEGERIA11 or.
 - 2.1 **GAIA:** ELIKADURA LEGERIA18 or.
 - 2.2 **GAIA:** NAZIOARTEKO ELIKADURA LEGERIA 22 or.
3. **GAIA:** ELIKAGAI BEREZIEN LEGE ESPARRUA 28 or.

1.GAIA: ZUZENBIDEA

❖ SARRERA ETA KONTZEPTU OROKORRAK

- **Gizarte sistema:** norbanakoa + gizartea
- **Zuzenbidea:** kontrol sozialerako tresna gisa erabiltzen da.
- **Harreman juridikoak**
- **Arauen interpretazio juridikoa**
- **Ordenamendu juridikoa:** hierarkikoa

❖ GIZARTE SISTEMAK

Gizakia izaki soziala da, beraz, gizarte baten kide dela esan daiteke.

Norbanakoak beste norbanakoen beharra duenez, gizarteko kide bihurtzen da, bai helburu pertsonalak lortzeko, bai bizirauteko. Horretaz gain, norbanakoa beste pertsonen lagunduko da (ikasi-irakatsi, saldu-erosi, zerbitzua eskaini-erabili...).

Giza-harremanetan tentsioak edo gaizki-ulertuak daudenean, batzuetan hauek konpontzeko **legeria** behar da. Legeria **erabakiak hartzeko** ebazpen tresna da.

Kontrol sozialak arau sozialen bidez finkatzen du zein jarrera eredu den egokia.

- **SOZIALIZAZIO PROZESUA:**
 - Ikasketa prozesua da
 - Bizitza osoan zehar garatzen dugu
 - Jarraipena da, etengabekoa da sozializazio prozesua.
 - Gizabanakoa talde sisteman antolatzen, barneratzen da.
- **BARNERATZE PROZESUA:**
 - Taldearen arau eta baloreak bereganatzen ditu, hau da, jarrera eredu egokia zein den ikasi eta hura imitatzen du.
- **KONTROL SOZIALA:**
 - Batzuetan sozializazio prozesua ez da nahikoa pertsona guztiek arrera **eredu berbera eta egokia** izango dutela ziurtatzeko. Jarreraren **aldakuntza eta desbideratzea gertatu** daiteke akordio faltagatik.
 - **ALDAKUNTZA:** arau sozialekin bat ez datorren jarrera da. Gizarteak era positiboan baloratuko du aldakuntza, eta aldakuntza onartzen badu, jarrera eredu aldaketak egingo dira.

❖ HARREMAN JURIDIKOEN SUBJEKTUAK

- **PERTSONA FISIKOAK**
- **PERTSONA JURIDIKOAK:**
 - **Elkarteak edo korporazioak** (pertsone fisikoak elkartea)
 - **Fundazioak eta erakundeak/instituzioak** (ondasun multzoa=conjunto de bienes)

Harreman juridikoen subjektuen helburuak ekonomikoak, erlijiosoak, kulturalak... dira.

Pertsone fisikoek eta pertsone juridikoek ahalmen juridikoa izango dute, botere eta ahalmen juridikoen titular izateko gaitasuna baitute (gauzatzeko ahalmena).

❖ ARAU JURIDIKOEN SAILKAPENA BETETZEN DITUZTEN FUNTZIOEN ARABERA:

- **PORTAERA ARAUAK:** sistema juridikoaren **kontserbazioa** bilatzen dute eta legeak, arauak betetzen ez dituztenei dagozkien **zigorrak** aplikatzen zaizkiela bermatzen dute.
- **ANTOLAKETA-ARAUAK:** sistema juridikoaren **transformazioa** bilatzen dutenez, arau juridiko berrien **garapena** erregulatzen dute.

❖ ARAU JURIDIKO MOTAK: INDAR LOTESLEA

Indar loteslea duten arauak derrigorrez bete beharko dira. **Indar ez-loteslea** dutenak aldiz, ezin dira derrigorrez bete.

Indar ez-loteslea dutenak soilik kasu zehatzetan bete beharko dira, espainia mailan, autonomo erkidego batzuetan soilik aplikatzen direnak esaterako.

❖ ARAU JURIDIKOEN SAILKAPENA INDAR LOTESLEAREN ARABERA:

- **HALABEHARREZKOAK (LOTESLEAK):**
 - **Aginduzkoak: obligatorioak bai edo bai:**
 - Agindu positiboak: betebeharrak
 - Agindu negatiboak: debekuak
 - Baimenak: positiboak (egiteko) edo negatibok (ez egiteko)
 - **Aholku eta eskaerak: indar lotesle ahulagoa dute:**
 - Irizpenak: erakundeen iritzia arautzailea da, arauak ezartzen dituzte. **Ez da loteslea.**

- Errekurtsoak: ebazpenak inpugnatzeko tresna tekniko-juridikoa da: osoa edo partziala izan daiteke. Erabaki baten baliogabetzea eskatzea errekurtso bat izango litzateke: ez-bidezkoa, ez-legezkoa edo prozesua deskribatzen ziren irizpideak jarraitu ez direlako.

❖ ARAU LOTESLEEN SAILKAPENA HAUEN HELBURUEN ARABERA:

- **ADIERAZPIDEKO ARAUAK:** kontzeptua legeak esaten duen moduan ulertu behar da.
- **ARAU INSTRUMENTALAK:** helburu konkretuak lortzeko bete beharreko baldintzak ezartzen dituzte.
- **HELURU ARAUAK (“zumentarauak”):** lortu beharreko helburua zehatzen dute bidea zehaztu gabe.
- **ARAU GEHIGARRIAK:** alderdi baten borondate espeziidkoa falta denean eratzen dira.
- **LEGE ZEDATZAILEAK EDO XEDAPENEZKO LEGEAK (disposiciones legales):** aurreikusten ez ziren aldaketak arautzen dituzte.

❖ ARAU JURIDIKOAK:

- **ARAU OROKORRAK:** pertsonak erregulatzen dituzte berdintasunean oinarrituz:
 - **Arau orokorrak:** egoera berean dauden pertsonak erregulatzen dituzte, hau da, klase berdineko **subjektu guztiei** daude zuzenduak.
 - **Banakako arauak:** pertsona bakar bati, egoera jakin batean dagoenari zuzendutakoa. **Subjektu jakin bati** daude zuzenduak.
- **ARAU ABSTRAKTUAK:** egoerak erregulatzen dituzte ziurtasunean oinarrituz.
 - Kontextura berdina duten egoerak kasu guztietan ondorioak izango dituzte.
- **ARAU KONKRETUAK:** ekintza zehatzak erregulatzen dituzte.

❖ ARAU JURIDIKOEN EGITURA:

- **MANDAMENDUA: “balizko ekintza”** (supuesto). Aurreikusitako portaera eredua, espero dena. Batzuetan giza portaera ez da **intentzioskoa** ezta konszientea:
 - **Egitate juridikoak:** egoera naturalak edo bapatekoak (gizakiak eragindakoak ez direnak). Ondorio juridikoak dituzte.

- **Egintza juridikoak:** intentzioskoa da, hau da, gizakiaren borondatezkoa eta jakinaren gainean egindakoa. Ondorio juridikoak dituzte.
- **ZEHAPENAK (sanción): “ondorio juridikoak”.** Ordenamendu juridikoak ez betetzea suposatzen duen zigorra, zilegi ez den portaera bati loturiko zigorra.

❖ **ONDORIO JURIDIKOAK:**

- **POSITIBOAK:** gizarte kontrolerako teknika promozionalak dira, sustapenezkoak.
- **NEGATIBOAK=ZEHAPENAK:** arau hauste baten aurreko legediaren erreakzioa (zigorrak, isunak...)

EHAA - 2008ko abenduak 31, asteazkena

N.º 250 ZK.

7234

17/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa.

Eusko Legebiltzarrak abenduaren 23ko 17/2008 Legea, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa, onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa.

107. artikulua.– Elikagaigintzako zehapenak.

1.– Arau-hauste oso larriei 30.001 eta 300.000 euro bitarteko isuna jarriko zaie; arau-hauste larriei 2.001 eta 30.000 euro bitarteko isuna, eta arinei, berriz, ohartarazpena eta gehienez 2.000 euroko isuna.

2.– Diruzko zehapenak ezartzean, helburua da arau-haustentzat ez izatea hobe araua haustea hautsi duten araua betetzea baino; betiere, proportzionaltasun-printzipioa gogoan hartuta eta ezarri beharreko zehapena arau-haustearen larritasunaren arabera izanik.

❖ **ARAU JURIDIKOEN ANTOLAKETA: ORDENAMENDUA**

Arau juridikoak ordenamendu izeneko sistema batean **erlazionaturik antolatzen** dira:

- **KOORDINAZIO ETA MENPEKO HARREMANAK:**
 - **Koordinazioa:** maila berean dauden arauak, batzuk besteekin osatuko dira. Nola jardun behar den eta beharreko irizpideak + zehaztapenak.
 - **Menpekoak:** beste arauen azpitik daudenak
- **SISTEMA DINAMIKOA, ALDAKETA-ARAUAK DITUENA: ANTOLAKETA ARAUAK**
- **BERE KONTSERBAZIOERAKO TRESNAK: PORTAERA ARAUAK**
- **SISTEMA ITXIA**
- **BALIZOKOTASUNA ETA ERAGINKORTASUNA:** Baliozkotasunak arau zehatz bat indarrean egon arte, honen menpekoek ere balioa dutelad dio.

- **Baliozkotasuna=eraginkortasuna:** Funtsezko arauak emango diete balioa mepeko arauen, eta horrela sistema juridikoaren eraginkortasuna lortuko da.
- **Baliozkotasuna≠eraginkortasuna:** helburu zehatzetarako arau konkretuak badira ez diote sistema juridiko osoari baliozkotasuna emango, eta kasu zehatzetan soilik edukiko du balioa, hartzaile kopurua mugatua izango da.

❖ ORDENAMENDU JURIDIKOEN PLURALITASUNA:

- **ESTATU ANIZTASUNA:** estatu bakoitzak bere zuzenbide propioa dauka.
- **ESTATU MAILATIK GORAKO INSTITUZIOAK:**
 - Nazioarteko zuzenbidea
 - Erkidegoko zuzenbidea
 - Zuzenbide kanonikoa: eliza katolikoaren erregulazio juridikoa
- **ESTATU MAILATIK BEHERAGOKO INSTITUZIOAK:**
 - Estatu barneko instituzioak (estatuaren kontrolpean)

❖ ARAUEN INTERPRETAZIO JURIDIKOA:

Interpretazio juridikoa esanahia ulertzea eta onartzea da:

1. Araua ebatzi zeneko borondatea **ulertuz**
2. Ordenamendua juridikoaren markoan gainontzeko **arauekin alderatuz**
3. Gur egun zergatik irauten duen ulertuz, hau da, bere **helburua** ulertuz.

Kode Zibilaren 3.1. artikulua:

“Arauek euren hitzez-hitzeko esanguraren arabera interpretatuko dira, testuinguruari, aurrekari historikoei eta legegintzazko aurrekariari dagokionez, eta arau horiek aplikatu diren garaiko gizarte-errealitateari lotuta, batik bat, arauen xedea kontuan hartuta”

Arauen interpretazio juridikoa mota desberdina izan daiteke:

4. Interpretazio deklaratioa: idatzita dagoena hitzez-hitz ulertzea
5. Interpretazio murriztailea: hitzez-hitzeko esanahia murrizten da idatzita dagoena interpretatzeko eta momentuko kontestura moldatuko da interpretazioa.
6. Interpretazio hedagarria: hitzez-hitzeko esanahia zabaltzen du, egoera bakoitzean arrazoia edo hausnarketa erabiliz.

Hitzez-hitzeko formulazioak eta hizkuntza erabilerek markatze dute limiteen barnean agertzen da aplikazio aniztasuna, eta indeterminazio tartea. Aplikazio aniztasuna kasu berdinean egonda, egoera ezberdinetan aplikatuko da.

Epaitegia arduratzen da legediaren aplikazio ekitatiboaz eta zuzenaz.

Ekitatea norbanakoaren eskubideak babesteko inpartzialtasua edukitzea da, guztiok legearen aurrean berdinak izateko baliokidetasuna erabiliz.

❖ ARAU GATAZKA:

Batzuetan organismo askok aldi berean helburu berdinarekin legeak ezartzen dituzte eta hartaz, arau gatazka ematen da. **Arau gatazka** egongo da egoera berdina erregulatzen duten bi araua edo gehiago bateraezinak direnean.

Arau gatazka **ebazteko irizpideak** hurrengoak dira:

1. **Hierarkikoa:** maila altuagoko araua maila baxuagoko araua baino garrantzitsuagoa denez, maila altuagokoa nagusituko da.
2. **Denborazkoa:** arau berrienak dira baliozkoak, hau da, arau berriek zaharrenak deuseztatzen dituzte.
3. **Espezialitatea:** arau bereziek (egoera berezietara zuzendutakoek) arau orokorrak indargabetzen dituzte.

❖ ARAU FALTA: HUTSUNE LEGALA

Kode Zibilaren 1.4. artikulua:

"Zuzenbidearen printzipio orokorrak legerik edo ohiturarik izan ezean aplikatuko dira, printzipio horiek antolamendu juridikoa eratzeke duten izaerari kalterik egin gabe"

Kode Zibilaren 4.1. artikulua:

"Arauen aplikazio analogikoa bidezkoa izango da, arauok kasu zehatza arautu ez arren, horren antzeko beste bat arautzen dutenean, bi kasuon oinarria berbera dela"

Arau falta **hutsune legala** egotea da, eta hau araurik ez dagoen kasuetan gertatzen da. Arau faltak **ebazteko irizpideak** hurrengoak dira:

1. **Analogia:** antzekotasuna duen egoeran aplikatzen den araua erabiltzea.
2. Ordenamendu juridikoaren **oinarrizko printzipioetara** jotzea egoera ezin bada analogiaren bidez konpondu. Oinarrizko printzipioak hurrengoak dira:

- Etikoki eta zuzen jardutea (fedee onez jardutea, solidaritatez, logika eta zentzua aplikatzea...). Gizarteko errealitate askotan legediaren aurretik doa etikoki eta zuzen jardutea, legedian jasota ez dauden egoerak ebazteko balio duelako.

❖ ORDENAMENDUAREN HIERARKIA



2 irudia. **Espainiako estatuko** ordenamendu juridikoa osatzen duten lege eta arau juridikoen egitura hierarkikoa.

❖ LEGEAK:

- **LEGE ORGANIKOAK:**
 - **Garrantzi handikoak edota arreta berezikoak** kontsideratzen diren gaiak erregulatzen dituzte.
 - Gizartearentzat hain garrantzitsuak direnez, lege izapidetza konplexuagoa da, eta **gaian aditutako profesionalak** behar dira lege organikoak egiteko.
 - Oinarrizko eskubideen garapena, autonomia erkidegoen independentzia...
- **LEGE DEKRETUAK:**
 - **Lege baten balioa duen arauak dira, baina behin-behineko balioa dute.**

- **Gobernuko lehendakariak sinatzen** ditu lege dekretuak, eta ez du parlamentu edo kongresuaren baimenik behar
- Izendatu ostean parlamentuan edo kongresuan ebaluatuko da ea legea onartuko den edo baliogabetuko den.

- **DEKRETU LEGEGILEAK:**

- **Lege baten balioa duen araua** da, behin-behinekoa.
- Botere legegileak, hau da, **gobernuak** adostutako legea da.
- Oinarrizko lege arrunten bidez leheneratu daiteke.


❖ **ORDENAMENDUAREN HIERARKIA:**

- **Estatuko administraritzan:**

- **Errege Dekretuak (ED): ministro Kontseiluak** onesten duenean. Lehenengo ministro kontseiluak onesten du, ondoren lehendakariak sinatzen du, hartaz errege dekretuak osatuta gelditzen dira eta azkenik araudien barnean barneratzen dira. Errege dekretuek beti daukate ministeritzako aginduek baino balio altuagoa, hierarkia altuagoa (begiratu aurreko orrialdeko piramidea).
- **Aginduak:** ministro berak onesten duenean. Arlo bakoitzeko (hezkuntza, ingurugiro, kultura...) ministroek onesten eta sinatzen dituzte .

- **Autonomia erkidegoko administraritzan:**

- **Dekretua: gobernuko** kontseiluak onesten duenean
- **Aginduak: Kontseilariak** onesten duenean.



1 irudia. **Europako Erkidegoko** arau juridikoen egitura hierarkikoaren irudia. Ezkerreko piramidea gaur eguneko behin-behineko egoerari dagokio; eskuinekoa, etorkizunerako aurreikusten den arau-hierarkiaren behin betiko egiturari.

❖ **EUROPAKO ARAU JURIDIKOAK:**

1. **ARAUDIAK:** Europar Batasuneko (EB) estatu guztietan derrigorrezko xedapenak eta zuzenean aplikatuko direnak.
2. **ERABAKIAK:** nahitaezkoak dira (ez daude EB-ko estatu guztiei orokorrean zuzenduak).
3. **ZUZENTARATUAK:** EB-ko estatu guztiak behartuta daude betetzea; kasu bakoitzean zehaztutako epe batean beteko dena.
4. **GOMENDIOAK:** ez dira nahitaezkoak, modu zehatz batean jarduteko aholkuak dira.
5. **IRIZPENAK:** arau ez-loteslea da, balorazio edo iritzi bat adieraziko duena.

2.GAIA: ESTATUKO ELIKADURA LEGERIA

❖ KONPLEXUTASUN TEKNIKO JURIDIKOA ESPAINIAKO ESTATU MAILAN:

- **OSASUNA, GIZARTE-ZERBITZUAK ETA BERDINTASUN MINISTERIOA:**
 - Kontsumorako, Elikagaien Segurtasunerako eta Nutriziorako Espainiar Agentzia (**AECOSAN**)
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA, ELIKADURA ETA INGURUMEN MINISTERIOA =** Ministerio de Agricultura, Pesca, Alimentación y Medio Ambiente (**MAPAMA**)

❖ KONPLEXUTAUN TEKNIKO JURIDIKOA AUTONOMIA ERKIDEGO MAILAN:

- **EUSKO JAURLARITZA:**
 - Osasun saila
 - Ingurugiro saila
 - Ekonomia, Garapen eta Lehiakortasun Saila
 - **ELIKA:**
 - **Aholkurako** organo independentea
 - **Elikadura-segurtasunaren** kudeaketa

❖ ESTATUKO ELIKADURA LEGERIA

- Espainiar Elikadura Kodea
- Elikagaien Segurtasunari eta Nutrizioari buruzko Legea

❖ ESPAINIAR ELIKADURA KODEA (EEK)

- **JATORRIA:** Espainiar Konstituzioak (1978koak) hurrengoak adierazten du:
 - **43.Artikulua:** osasun publikoak kontsumitzaileak duen babestua izateko eskubidea onartzen du.
 - **51.Artikulua:** “aginte publikoak behartuta daude kontsumitzaileen segurtasuna eta interesak bermatzera, osasuna babestera”.

Espainiar Elikadura Kodea gai horretan ordenamendu juridikoaren oinarritzko araua da, eta **elikagaien inguruko arauen bilduma** osatzen du. Espainiar Elikadura Kodea bi erakundeek, **FAOk eta OMEk**, egindako

lanetatik sortu zen **60.hamarkadan** (1967an): Espainia mailan Espainiar Elikadura Kodea garatzeko **aditu-batzordea** sortu zen. Eta hauek osatu zuten aditu-batzordea:

- **Administrazio publikoko** hainbat ordezkarik
- **Elikagaien arloko** hainbat ordezkarik: lehen sektorea, merkataritza sektorea eta industriako sektorea.

→ 2484/1967 Dekretua

14180
17 octubre 1967
B. O. del E.—Núm. 248

L. Disposiciones generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

DECRETO 2484/1967, de 17 de octubre, por el que se aprueba el texto del Código Alimentario Español.

La Comisión Mixta de la Salud, O. M. S. A. la Organización de las Naciones Unidas para la Agricultura y la Alimentación (F. A. O.) y la Comisión de Industrias Agrícolas y Alimentarias (C. I. A.) vienen considerando desde hace años de que los diversos Gobiernos tienen a salvo algunos elementos comunes al respecto de la preparación y perfeccionamiento de Códigos Alimentarios Nacionales.

Con esta finalidad, por lo que se refiere a España, se crea por Orden de Delegación de Poderes de 1961 una Comisión Interministerial Técnico-Asesora, a fin de estudiar un Proyecto de Código Alimentario Español.

Comulgando por dicha Comisión el encargo recibido, acumulado al Proyecto por la misma, redactado por la Organización de Naciones Unidas y de la Comisión Mixta Agrícola y Alimentaria, e informada favorablemente por la Comisión Interministerial para la Organización Alimentaria creada por Decreto del 1961, y después de haberse y en sus sesiones y trabajos, en el curso de los cuales se ha considerado convenientemente la aprobación de dicho Código, que se declara en vigor en la fecha que se prevé en el presente Decreto.

En su virtud, a propuesta del Ministerio de Sanidad y de la Presidencia del Gobierno, y previa deliberación del Consejo de Ministros en su reunión del día ochavo de agosto de 1967:

a) Definir qué son los alimentos que alimentan, comen, se consumen, beben y demás productos y materias a que alude, con sus definiciones.

b) Establecer las condiciones mínimas que han de cumplir los alimentos.

c) Establecer sus condiciones mínimas de su correcto procesamiento de preparación, conservación, distribución, transporte, estabilidad y consumo de los alimentos.

LEY 2.ª Aplicación.—Las disposiciones de este Código son de aplicación obligatoria en todo el territorio nacional.

d) En cuanto a lo que se dice la armonía o armonía entre alimentos, se entenderá que son el país o territorio de su origen.

e) En cuanto a lo que se dice de obtención, cultivo o manipulación, se entenderá que son el país o territorio donde haya de producirse, si bien pueden tenerse en cuenta a efectos de clasificación las importaciones de los países de destino, con las correspondientes inspecciones en los países.

f) En su redacción y observancia están obligados todos los organismos técnicos y científicos, cualquiera que sea su nacionalidad, en tanto en cuanto se hallen en territorio español, incluso en forma transitoria o accidental.

CAPÍTULO II

TÍTULO I

LEY 3.ª

LEY 4.ª

Españiar Elikadura Kodea eraginkortasunez aplikatzeko bi epe ezarri ziren:

- lehenkoa **sei hilabetekoa: 29 kapitulu** betetzeko
- bigarrena urte bateko gainontzeko **9 kapituluak** betetzeko.

→ 2519/1974 Dekretua

B. O. del E.—Núm. 220
13 septiembre 1974
18647

I. Disposiciones generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

18225 **DECRETO 2519/1974, de 9 de agosto, sobre entrada en vigor, aplicación y desarrollo del Código Alimentario Español.**

La necesidad de completar la normativa vigente en materia de alimentos, condimentos, estimulantes, bebidas y demás productos de consumo humano, aconseja la puesta en vigor del Código Alimentario Español, aprobado por Decreto del 1967, con modificaciones ochenta y cuatro mil novecientos sesenta y siete, de veintinueve de septiembre.

Sin embargo, la experiencia recogida en los últimos años sugiere la conveniencia de respetar las disposiciones vigentes en materia alimentaria, sin perjuicio de su ulterior adaptación, en cuanto fuere necesario, a la sistemática, principios básicos y directrices técnicas que el Código contiene.

Artículo cuarto.—La Comisión Interministerial para la Ordenación Alimentaria tendrá los cometidos siguientes:

a) Informar, con carácter preceptivo, las disposiciones que se refieren a la aplicación, desarrollo o modificación del Código Alimentario.

b) Formular cuantas mociones o propuestas considere convenientes en materia alimentaria.

c) Mantener actualizada la documentación e información, nacional e internacional, en lo referente al sector alimentario.

d) Efectuar las tareas de estudio, coordinación y asesoramiento que precisen los asuntos relacionados con la ordenación alimentaria, sometidos a su consideración.

e) Colaborar, por iniciativa o grupos de trabajo, en relación con aspectos concretos de aplicación y desarrollo del Código Alimentario, o elaboración de proyectos de disposiciones relativas al mismo, o cuyo efecto podrán recabarse las colaboraciones oportunas.

Españiar Elikadura Kodea eraginkortasunez aplikatzeko bi epe ezarri ziren:

- lehenkoa sei hilabeteko **29 kapitulu** betetzeko
- Bigarrena: **urte batekoa gainontzeko 9 kapituluak** betetzeko.

- **OINARRIZKO PRINTZIPIOAK**
- **HELBURUAK:** Espainiar elikadura kodea hainbat helbururekin sortu zen:
 - **Elikagai, ongailu, estimulatzailerik** (kafea, tea, kakaoa), **edari** eta hauen erregulazioarekin erlazionatutako **produktu** (lehengaiak) eta **materiak** (ekoizpena) nola ulertu behar den **DEFINITZEA**.
 - Azken horiek bete beharreko **oinarrizko BALDINTZAK EDO IRIZPIDEAK EZARTZEA**.
 - **Elikagaien prestakuntza, kontserbatzea, ontziratzea, banaketa eta garraioa, publizitatea eta kontsumorako** oinarrizko **BALDINTZAK ZEHAZTEA**.
- **IRISMENA:** lurralde nazional osoan:
 - **Espainian kontsumituko den edozein produktuk** EEK-ko arauak bete beharko ditu, nahiz eta Espainiatik kanpo ekoiztua izan.
 - **Espainian lortu, ekoiztu edo manipulatu den edozein produktuk** EEK-ko araua bete beharko ditu, Espainiatik kanpo kontsumitua izateko ekoizten bada ere.
 - **EEK-ko arauak Espainia lurraldetan dagoen pertsona orok**, bai fisikok bai juridikok bete beharko dituzte, eta nazionalitateak edo Espainian era iragankorrean egoteak ez du axolako.
- **EDUKIAK**
- **GARAPENA:** EEK-ko xedapenak bi kategoria edo mailatan sailkatzen dira:
 - **Osasun Arau Teknikoak:** **Dekretu bidez** onartzen dira, **sektore oso baten** do sektore baten parte garrantzitsu baten **baldintzak** determinatzeko arauak dira (lorpen, ekoizpen, transformazioa eta komertzializazioa). ADIB: industrietako esne eta esnekien biltegitarte, garraio eta komertzializazio arauak
 - **Kalitate Arauak:** **Ministerio agindu bidez** onartzen dira, **produktu bakoitza** era oso zehatzean **definitzen dute**. Produktua merkatu nazionalen komertzializatuak izateko ete behar dituzten **baldintzak eta ezaugarriak** adierazten dituzte. Produktua sailkatzeko (salmentarako sailkapena) kontuan hartu beharreko faktoreak determinatzen dituzte.
 - **Bestelako xedapenak**




❖ ARAUEN EGITURA:

- **MAILA HORIZONTALA:** irismen orokorreko arloek **elikadura-sektoreko** eragile sozioekonomiko **guztiei** eragiten dite. Adib: elikagaien etiketatua, gehigarrien erabilpena erregulatzen duten xedapenak....
- **MAILA BERTIKALA:** arau **espezifiko** erregulaziorako sortzen diren arau konkrituak. Adib: eztiaren kalitate legea, yogurtaren kalitate legea, arautegi tekniko-sanitario espezifikoak...

❖ ELIKAGAIEN SEGURTASUNARI ETA NUTRIZIOARI BURUZKO LEGEA: 17/2011 LEGEA

1. SARRERA:

- Elikagaien krisien testuingurua
- Elikadura arriskuen kudeaketa
- **ELIKAGAI-SEGURTASUN** kontzeptua
- **Arreta printzipioa:** produktu jakin bat osasun publikoa edo eta ingurugiro arriskuan jarri dezakela **susmatzen** denean (ebidentzia zientifikorik ez badago ere) hartzen diren babes neurriak.
- **Kontsumitzaileentzat konfiantza**
- **ELIKADURA-OSASUNA** erlazioa.



Aurre-kapitulua 10 Kapitulu

Hasierako kapitulua

Helburuak
Aplikazio esparrua
Definizioak
Ekintzarako ildoak
Arriskuaren analisia
Trazabilitatea

10 Kapitulua

Elikagai eta pentsuen segurtasuna (I-VI):

- Prebentzio neurriak
- Kanpo komertzioaren segurtasun bermeak
- Kontrol ofiziala
- Elikagaien segurtasunerako tresnak
- Arriskuaren analisia
- Laborategiak

Elikadura osasungarria, jarduera fisikoa eta gizentasunaren prebentzioa (VII)

Elikagaien publizitatea (VIII)

Zehapenak eta Tasak (IX-X)

2. HELBURUAK:

- Elikagaien **segurtasuna** bermatzeko TRESNAK ezartzea, hau da, kontrol sistema bat ezartzea.
- **Formakuntzarako** eta nutrizio arloan **osasuna sustatzeko** (gizentasuna ekiditeko) PLANIFIKAZIO ETA KOORDINAZIORAKO OINARRIAK ezartzea.
- **Administrazioen elkarlana** sustatzeko BALIABIDEAK ezartzea.
- Elikagaien **arriskuei buruzko ebaluazioa eta kudeaketa** PROZEDURK ARAUTZEA.

3. EDUKIA:

▪ ELIKAGAIEN SEGURTASUNA:

- **Seguruak ez diren produktuak ezingo dira merkaturatu.**
- **Mugetako kontrola:** segurtasuna bermatzeko elementu gakoa
- **Elikadura katearen kontrolerako plana** (2 urtero berrezten du ikuskaritzak)

- Estatua, AAEE edo herri mailan **kontrol edo ikuskapenerako organismo bateratuak sortu.**
 - **Informazioaren elkartruke azkarrerako prozedurak** (irizpen zientifikoak, arrisku berrien ezaugarritzea elikagaien kontrol ofiziala, informe eta estatistikak) (AECOSAN-ek garatutakoa), hurrengoetarako erabiltzen dira:
 - **Arriskuaren analisia gauzatzeko**
 - **Elikagaien Segurtasun Laborategiak (RELSA)**
- **ELIKADURA OSASUNGARRIA:**
- **Trans GA-k gutxitzeko prozesuak**
 - **NAOS estrategia: elikadura osasuntsua eta jarduera fisikoaren sustatzea eta obesitatea saihestea** (gizarteari orokorrean baina umeei, nerabeei eta haurdun dauden emakumeei bereziki zuzendutakoa). NAOS estrategiak obesitateak osasunarentzat suposatzen duen arriskuaren aurrean populazioaren sentsibilizazioa bilatzen du. Orokorrean biztanleriak, bizi-ohitura osasuntsuak (elikadura eredu osasuntsuak eta ohiko jarduera fisikoa) jarraitu ditzaten ekimenak sustatzen ditu, baina haur eta gazteetan bereziki zentratzen da:
 - **Ume eta nerabeen babesa:**
 - **Hezkuntzan elikadura osasuntsuak eta jarduera fisikoak duten garrantzia landu.**
 - **Jantokietako menuen informazioa** (hilabetekoa) eskaini familiei, eguneko dieta modu orekatuan antolatu dezaten, afariak bazkarien arabera antolatuz.
 - **Eskolako jantokietan menu orekatuak eskaini, Menu berezien eskaintza** (zeliakoak adibidez). Bestelako alergiak egotekotan erraztasunak eman.
 - **Trans eta GA aseak eta azukreak** dituzten elikagaien eta edarien salmenta **debekatzeko da eskoletan.**

Interbentzio esparrua



- **Nutrizio eta Gizentasunaren Ikerketarako Begiratokia:** Espainiako biztanlerian gizentasunaren prebalentziaren ikerketa eta ezaugarritzea, hau da, obesitatearen prebentzioan lortu diren aurrerapausoak neurtzea.



- **PUBLIZITATEA hurrengo kasuetan debekatzen da:**
 - Kontsumoa sustatzeko babes profesional edo zientifikoa erabiltzea (abalak).
 - Osasun zentroetan erabiltzen dela iradokitzea edo Farmazien bidezko salmenta.
 - **Eskoletan publizitatea** egitea debekatuta dago eta **15 urtetik berakoentzako elikagaien publizitatea** arautzen da.
- **ARAU-HAUSTEAK:**
 - **Arau hausteen mailakatzea:**
 - Arinak
 - Larriak
 - Oso larriak
 - **Zehapenak esleitzeko irizpideak:**
 - Osasunarentzako arrisku maila
 - Lortutako irabaziaren zenbatekoa
 - Nahitasun aila (borondatezkoa izan ote den edo zorizkoa izan den)
 - Gizartean sortutako gaitzaren larritasuna
 - Arau-haustearen errepikapena

- **ZEHAPENAK:**
 - **Zehapenak:**
 - Arau-hauste arinen kasuan < 5.000 euro
 - Arau hauste larrien kasuan 5.001-20.000 euro
 - Arau hauste oso larrien kasuan 20.001-600.000 euro
 - Beharrezkoa ikusten denean establezimendua edo instalazioa itxi daiteke, larritasun irizpideen arabera.
 - **Bestelako neurri posibleak (aurrekoek gain):**
 - Merkantzien bahitzea
 - Zehapenen argitaratzea edo publizitatea

2.1. ELIKADURA LEGERIA

❖ ELIKADURA LEGEDIA:

Elikadura legeria **giza elikadurara bideratutako produktuen** inguruko legeak egiten dituen zuzenbidearen atala da; eta hurrengo esparrutan aplikatzen da: ekoizpena, prestaketa, salmenta edo elkartruke komertzialak, eta kontsumoan.

Kontsumitzaileen osasunaren defentsa ere eskaintzen du, informazioa, babesa eta prebentzioa. Horretaz gain elikadura legeriaren bidez iruzurrak ekiditen dira.

Elikadura legediaren helburu nagusia elikadura osoan zehar **segurtasuna** eta **higienea** bermatzea da, lehengaietatik kontsumitzaileera arte:

1. Lehen mailako sektorea: nekazaritza, abeltzaintza, arrantza
2. Elikagai industria: elikagaien prestaketa edo elaborazioa (lehengo eraldaketa).
3. Salmenta edo komertzioa
4. Kontsumitzailea, legediaren bidez produktu segurua lortzen da.

Erromatar inperioan (k.a. 27-k.o. 476) eta Erdi Aroan (V-XV mendeetan) iruzurrak egon ziren.

1516. Urtean (Baviera) elikagai baten erregulazioa eman zen, garagardoaren purutasun(ura+garagarra+lupula) legearen bidez, aizuntzeak=faltsifikazioak ekiditeko.

XVII. mendearen amaieran: **kontrol sistematikoa** (oinarrikoa)

XVIII. mendean **gizartearen babeserako sistema** orokortu baten beharra sumatu zutenez, mende honen bukaeran “**prebentzioa**” eta “**segurtasuna**” kontzeptuak definitu ziren.

XIX-XX. mendeetan gaur eguneko elikadura-zuzenbidearen hastapenak ezarri ziren.

Elikadura legeria **elikagaien nazioarteko komertzioa** sustatzeko garatu da; eta honen bidez **herrialde guztiek bete** beharreko arauak edo legeak ezarri, **elikagai industrian kontrola eta segurtasuna** bermatu da; eta **kontsumitzaileen osasuna babestu** eta ziurtatu da.

Herrialde bakoitzak elikagaien iruzurraren aurkako lege espezifikoak ditu zonalde bakoitzen ekoizten, eta barneratu edo exportatzen diren elikagaien arabera.

Elikadura legeriaren gaur eguneko helburuak:

- **Elikagaiak** definitu
- Produktu bakoitzaren **osaera** arautu
- Erabil daitezkeen **substantzia** motak ezarri eta **kopuruak** mugatu
- **Kaltegarriak** diren sustantzien erabilpena arautu
- **Kontrol-neurriak** definitu
- **Ikuskaritza** prozedurak ezarri
- **Kontsumitzaileekiko informazioa** bermatu
- **Ontziratzea eta etiketatua arautu**; eta iruzurra ekidin

❖ **ARAUEN EGITURA:**

- **MAILA HORIZONTALA:** Irismen orokorreko arloko arloak, **elikadura-sektoreko** eragile sozioekonomiko **guztiei** eragiten dietenak. Adib: elikagaien etiketatua, gehigarrien erabilpena erregulatzen duten xedapenak...
- **MAILA BERTIKALA:** Arau **espezifiko**en erregulaziorako sortzen diren arau konkrituak. Adib: eztiaren kalitate legea, yogurtaren kalitate legea, arautegi tekniko-sanitario espezifikoak...

❖ NAZIOARTEKO ELIKADURA LEGERIA: CODEX ALIMENTARIUS

Elikadura Kodearen Batzordea 1962an sortu zen **FAO (Elikadura eta Nekazaritzako Nazio Batuen Erakundea)** eta **OME (OME=OMS; Osasunaren Mundu Erakundea)**-ren akordioz.

Elikadura Kodearen Batzordearen helburua nagusia elikadura-arauei buruzko programa bateratua martxan jartzea zen; eta hurrengoak helburu zehatzagoak dira:

- 1. Kontsumitzaileen osasuna babestea.**
- 2. Elikadura produktuen merkataritzan pareko praktikak ezartzen zirela bermatzea.**
- 3. Nazioarteko erakundeek elikadura arauen inguruan egiten dituzten lan guztien koordinazioa sustatzea.**
- 4. Lehetasunak determinatzea eta arauen prestakuntzarako orientabideak ematea.**
- 5. Arauak ezartzea** eta gobernuak arau horiek onartu dituztenean, **Elikadura Kodean argitaratzea**, zonaldekako arau gisa edo mundu mailako arau gisa.

❖ NAZIOARTEKO ELIKADURA LEGERIA: EUROPAKO LEGEBILTZAR KONTSEILU ETA BATZORDEA

Europar Batasun erkidegoko estatukideentzako erreferentziako legezko xedapenak egiten dituzte; bai ildo **orokorrekoak** (esparru-arautegiak, zuzentarauak...) eta bai ildo **espezifikoak** (estatu mailako zuzenbidera ekartzen diren xedapenak).

❖ NAZIOARTEKO ELIKADURA LEGERIA: EFSA: European Food Safety Authority

Europako Batzordea (CE) Europako Segurtasun Agentziaren (EFSA) aholku eta irizpen zientifikoetan oinarritzen da legeak egiteko.

EFSA-k **abereen elikaduratik edo landareen ongarrietatik** hasi eta **kontsumitzaileeraino**, elikadurarengandik etor daitezkeen **arriskuak ikertu** eta horiei buruzko **aholkua ematen** du. Horretaz gain, **elikagaien segurtasunarekin** lotutako mundu mailako informazioa kudeatzen du.

❖ **NAZIOARTEKO ELIKADURA LEGERIA: DIRECTORATE-GENERAL FOR HEALTH AND CONSUMERS**

Directorate-General For Health And Consumers **Europako Batzordean integratutako organo bat da**. Eta hurrengoak dira honen helburuak:

- Kontsumitzaileek **arduratsuki** joka dezaten sustatzea
- Giza **osasuna** babestea eta hobetzea
- **Elikagai seguru** eta **osasuntsuak** bermatzea
- Animalia eta landareen **baldintzen kontrolak** (plagak, gaixotasunak, higiene baldintzak...) bermatzea

❖ **ESTATU MAILAKO ELIKADURA LEGERIA: OSASUNA, GIZARTE-ZERBITZUAK ETA BERDINTASUN MINISTERITZA**

Kontsumorako, Elikagaien Segurtasunerako eta Nutriziorako Espainiar Agentzia (AECOSAN) aholkurako organo independentea da, eta hurrengoak dira bere **helburuak**:

- **Kontsumitzaileen eskubideak** bermatzea eta sustatzea
- **Elikagaien segurtasuna** bermatzea informazio objetiboa eskeiniz
- **Obesitatea saihesteko estrategiak** garatzea elikadura arloan

❖ **ESTATU MAILAKO ELIKADURA LEGERIA: NEKAZARITZA, ARRANTZA, ELIKADURA ETA INGURUMEN MINISTERITZA (MAPAMA: Ministerio de Gricultura Pesca, Alimentación y Medio Ambiente)**

❖ **ESTATU MAILAKO ELIKADURA LEGERIA AUTONOMIA ERKIDEGO MAILAN: EUSKO JAURLARITZA → ELIKA**

Eusko Jaurlaritzak osasun saila, ingurugiro saila; eta ekonomia, garapen eta lehiakortasun sailak ditu.

ELIKA aholkurako organo independentea da; eta **elikadura segurtasunaren kudeaketaz** arduratzen da.

❖ ELIKADURA LEGEDIAREN ETORKIZUNA EURPOAR BATASUNEAN:

- Elikagai osasuntsuagoen gomendioa eta eskaintza
- Elikagaien **konposaketa nutrizionalean** hobekuntza
- Elikagai osasuntsuagoen **hautaketa** erraztu
- **Talde espezifikoei zuzendutako elikagaien eta elikagai osagarrien erregulazioa hobetu** (kirolariak, agureak...)
- **Lege xedapenak** zehaztea
- **Hitzarmen sektorialen bidez** arau juridiko berrien garapena
- **Arau teknikoak** ezartzea

2.2. NAZIOARTEKO ELIKADURA LEGERIA

❖ NAZIOARTEKO ELIKADURA LEGERIA:

1. EUROPAKO LEGEBILTZAR, KONTSEILU ETA BATZORDEA
2. EFSA: European Food Safety Authority
3. Directorate General for Health and Consumers (DG-SANTE)
4. **CODEX ALIMENTARIUS:** gai honetan modu zabalagoan landuko dugu

❖ NAZIOARTEKO ELIKADURA LEGERIA: EURPOKAO LEGEBILTZAR, KONTSEILU ETA BATZORDEA

Europar Batasun erkidegoko estatukideentzako erreferentziazko legezko xedapenak egiten dituzte:

- ❖ Ildo **orokorrak** ezartzen dituzten xedapenak (esparru-arautegiak, zuzentaruak...)
- ❖ Ildo **espezifikoak** estatu mailako zuzenbidera ekartzen diren xedapenak dira.

❖ NAZIOARTEKO ELIKADURA LEGERIA: EFSA: EUROPEAN FOOD SAFETY AUTHORITY

Europako Batzordeak (EB) legeak egiteko Europako Segurtasun Agentziaren (EFSA-ren) aholku eta irizpen zientifikoetan oinarritzen da.

EFSA-k **abereen elikaduratik edo landareen ongarrietatik** hasi eta **kontsumitzaileeraino**, elikadurarengandik etor daitezkeen **arriskuak ikertu** eta horiei buruzko **aholkua ematen** du. Horretaz gain, **elikagaien segurtasunarekin** lotutako mundu mailako informazioa kudeatzen du.

❖ NAZIOARTEKO ELIKADURA LEGERIA: DIRECTORATE-GENERAL FOR HEALTH AND CONSUMERS

Directorate-General For Health And Consumers **Europako Batzordean integratutako organo bat da**. Eta hurrengoak dira honen helburuak:

- Kontsumitzaileek **arduratsuki** joka dezaten sustatzea
- Giza **osasuna** babestea eta hobetzea
- **Elikagai seguru** eta **osasuntsuak** bermatzea
- Animalia eta landareen **baldintzen kontrolak** (plagak, gaixotasunak, higiene baldintzak...) bermatzea

❖ CODEX ALIMENTARIUS:

Elikadura Kodearen Batzordea 1962an sortu zen **FAO (Elikadura eta Nekazaritzako Nazio Batuen Erakundea)** eta **OME (OME=OMS; Osasunaren Mundu Erakundea)**-ren akordioz.

Elikadura Kodearen Batzordearen **helburua elikadura-arauei buruzko programa bateratua** martxan jartzea zen.

Edozein naziok Kodeko arauak onar ditzake, bere lege eta administrazio prozedurak errespetatuz produktu konkretuen **banaketari** dagokionez: bai atzerriko produktu **inportatua** bada eta baita **nazionalki produzitutako** produktua bada ere.

❖ CODEX ALIMENTARIUS-aren HELBURUAK:

1. Kontsumitzaileen osasuna babestea.
2. Elikadura produktuen **merkataritzan pareko praktikak** ezartzen zirela bermatzea.
3. Nazioarteko erakundeek **elikadura arauen** inguruan egiten dituzten lan guztien **koordinazioa** sustatzea.
4. Lehentasunak determinatzea eta **arauen prestakuntzarako orientabideak** ematea.
5. **Arauk ezartzea** eta gobernuek arau horiek onartu dituztenean, **Elikadura Kodean argitaratzea**, zonaldekako arau gisa edo mundu mailako arau gisa.

❖ CODEX ALIMENTARIUS: ARAUEN NATURA:

Kodeko arauetan elikagaiak bete behar dituzten **irizpideak** azaltzen dira, kontsumitzaileari produktu **osasuntsua** eskaintzen zaiola bermatzeko, hau da, ez dela **aizundua**=engainua; eta **era egokian etiketatua eta aurkeztua** dagoela ziurtatuz.

- **ARAUAK:**
 - Elikagai-prestatuak, erdi-prestatuak eta gordinak
 - Elikagaien prestakuntzarako beharrezkoak diren gai guztiak ezartzea (higienea, etiketatua, gehigarriak...)

❖ CODEX ALIMENTARIUS: ILDOAK

Codex-eko arau orokorren interpretazioan ildoak laguntzen dute, egoera bereziak arautzeko batez ere.

- **ILDOAK:**
 - Elikagaien **etiketatuaren** ingurukoak, eta konkretuki, etiketa eta publizitatean ager daitezkeen **adierazpenen** ingurukoa.
 - **Elikagai berezien** ekoizpen, merkaturatze eta etiketatua. Adib: elikagai organikoak edo *halal* izaera dutenak.
 - **Inportazio eta exportazioen** ziurtapenerako printzipioen interpretazio ildoak.
 - **Genetikoki eraldatutako elikagaietan (GMO/OGM)** egin beharreko ebaluazioentzako ildoak.

❖ CODEX-ALIMENTARIUS: PRAKTIKA KODEAK

Praktika kodeek kontsumorako zuzenduta dauden elikagaiei edo elikagai taldeei buruzko **ekoizpen, garraio eta biltegiatze praktika egokiak** definitzen dituzte.

“Elikagaien Higienaren Printzipio Orokorrak” ezartzen dituen praktika kodeak **Arriskuen eta Kontrol Kritikoko Puntuak Analisirako (AKKPA)** oinarriak ezartzen ditu.

❖ EUROPAKO ELIKADURA LEGERIA

XX. mendearen amaieran elikagaiekin lotutako larrialdiaren (koltza olio txarra, behi eroen gaitzak...) **ondorioz** idatzi zen Europako elikadura legeria:

- **ELIKAGAIEN SEGURTASUN LIBURU TXURIA** (2000ko urtarrilean):
 - **Elikagaien segurtasunean diharduen autoritate baten** beharra.
 - **Kontsumitzaileen osasunaren babesean oinarritutako politika** berrien beharra (arautegiaren bateratzea, kontrol neurriak elikadura kate osoan zehar...).
 - **Esparru legal berri baten beharra**, politika berriekin bat datorrena.
 - **178/2002 (EB) Arautegia** sortu zen European Food Safety Agency (EFSA)-n. Araudi honek oinarri gisa dituen printzipioak arriskuen analisirako metodologiak, trazabilitatea eta ardura printzipioa ezartzeko erabiltzen dira. Horretaz gain, alerta sistema azkarrerako sistemak eta krisialdien kudeaketarako prozedurak ere ezartzen dira.

[178/2002 \(EB\) Arautegia](#)



Higiene paketea + Kontrolak + Irizpide mikrobiologikoak ezarri

852/2004 ARAUDIA

Elikadurarako produktuen higiena.

[852/2004 \(EB\) Arautegia](#)

853/2004 ARAUDIA

Animalia jatorriko produktuen higiena.

[853/2004 \(EB\) Arautegia](#)

273/2005 ARAUDIA

Elikagaien irizpide mikrobiologikoak

[2073/2005 \(EB\) Arautegia](#)

2017/625 ARAUDIA

Elikagaiak, pentsuak, animalia eta landareen osasunerako eta produktu fitosanitarioetan legediaren aplikazioa ziurtatzeko kontrolak.

1881/2006 ARAUDIA

Elikagai produktuen gehiegizko kontaminatzaile edukia.

[178/2002 \(EB\) Arautegia](#)



Higiene paketea + Kontrolak + Irizpide mikrobiologikoak ezarri ziren

- Etiketatua eta osasun adierazpenak
- Elikagai berriak
- Substantzia kaltegarrientzako mugak
- Osagaien zerrenda
- ...

❖ EUROPAKO ELIKADURA LEGEDIAREN PRINTZIOAK:

• **ARRETA ETA ARDURA:**

- **Ez dago erabateko segurtasua deun elikagairik**, hau da, ez da “0 mailako” arriskua existitzen.
- **Zientziak ezin du beti** elikagaien segurtasunari buruzko **erantzuna eman** (eztabaida vs. ebidentzia zientifikoa).
- Elikagaien segurtasuna honela ulertu daiteke: **elikagaiak duen arriskuarekiko tolerantzia edo onartzea** (arrisku maila baxuena onartuz).

Kasu hauetan eta **ardura printzipioan oinarrituta**, gizartearen osasun egoera babesteko **behin-behineko zaintza neurriak** hartuko dira, ikerketa zientifiko gehiago burutzen diren arte.

• **GARDENTASUNA:**

- **ELIKAGAIEN AISEGURTASUN ARLOKO NEURRIAK:**
 - Gizarteari informazioa
 - Kontsumitzaileen konfiantza areagotu

• **ARRISKUEN ANALISIA:**

- **Arriskuaren balorazioa:** aholkularitza zientifikoa behar da eta arriskuaren balorazioan **4 fase** bereizten dira:
 1. Arrisku faktorea **identifikatzea**
 2. Arrisku **faktorearen karakterizazioa:** eragileak deskribatu eta bereiztu
 3. Arriskuarekiko **exposizioa zehaztu**
 4. Arrisku beraren **karakterizazioa**
- **Arriskuaren kudeaketa:** erabaki **politikoak** hartuko dira, hau da, **prebentzio eta kontrol** neurri egokiak hartuko dira, baina beti ere gizartearen nahiak eta beharrak kontuan izanda.
- **Arriskuaren jakinarazpena:** arriskua zehazten duten arduradun, kudeaketaren arduradun, kontsumitzaile eta elikagaien enpresen arteko informazio elkartrukea beharrezkoa da. Gainera,

kontsumitzaileari informazioa emango zaio **modu argi eta zehatz** batean gaizkiulertuak ekiditeko.

- **ALERTA SISTEMA:** EB-ko agintari edo autoritate eta estatuen arteko informazio elkartruke azkarra ezinbestekoa da; eta osasun-arriskuak sumatzen badira, produktuaren atzera-egite (retirada) azkarra baimentzen dute alerta sistemek. Hurrengo informazio publikoa eskainiko da:
 - **Produktuaren identifikazioa**
 - **Arriskuaren izaera**
 - **Hartuko diren neurriak: mugatzea, atzera-egitea edo produktuaren berreskuratzea; eta profesionalei gomendioak.**

Informazio elkartruke Azkarreko sistema Europearra RASFF da.

❖ TRAZABILITATEA

Trazabilitatea ekoizpen, eraldaketa eta banaketa fase guztietan **produktuen jarraipena egiteko erregistro sistema** da. Elikagai jakin baten **jatorria eta ibilbidearen fase guztiak** (ekoizpena, biltegiatze, banaketa...) **kontrolpean** izatea ahalbidetzen du.

Elikagaiekin **arazoak** egotekotan **zergatia jakitea edo kontsumitzaileentzat arriskutsua** izatekotan, **produktua merkaturatzeetik kanpo** uztea ahalbidetzen du. **Horrela kalitate eta segurtasun** alderdiak indartzen laguntzen du; eta komertzializatzen diren **elikagaiak identifikatzea eta bereiztea** ahalbidetzen du.

3.GAIA: ELIKAGAI BEREZIEN LEGE

ESPARRUA

1. SARRERA: EGUNGO ELIKADURAN ALDAKETAK:

- Bizi-ohituretan eman diren aldaketak (denbora falta, etxetik kanpo jan, sukaldatzeko era...)
- Elikagai eta osasunaren arteko erlazioa
- Dieta orekatua eta osatua jarraitzearen garrantzia
- Elikagaien desorekak eragindako patologiak
- **Dieta orekatzen lagunduko duten osagai osasuntsuak dituzten elikagaien interesaren areagotzea**
- Ekoizpen prozesu berriak:
 - Dieta gehigarriak
 - Elikagai funtzionalak
 - Aberastutako elikagaiak
 - **Elikagai dietetikoak**

2. ELIKAGAI DIETETIKOAK

Elikagai dietetikoak **egoera berezietara bideratutako elikagaiak** dira. Daukaten **konposaketa edo ekoizpen prozesu bereziak** direla eta, ohiko elikagaietatik eta produktuetatik bereizten dira; **helburu nutrizional zehatzetara bideratuak** daude eta **helburu zehatzetarako saltzen** dira.

3. ELIKAGAI DIETETIKOEN EZAUGARRIAK:

- Elikagaiak dira
- Helburu nutrizional jakinetara egokitua dagoen konposaketa dute
- Ekoizpen prozesu bereziak
- Talde espezifikoetara bideratuak daude

4. ELIKAGAI DIETETIKOAK BIDERATUTA DAUDEN TALDEAK:

Lehen aipatu dugun bezala elikagai dietetikoak talde espezifikoetara bideratzen dira:

- Osasuntsu dauden **edoskitzaileak** edo **adin laburreko umeei**
- **Egoera fisiologiko bereziak** dituzten pertsonei:
 - **Metabolismoaren xurgapen eta erabilgarritasun** prozesuetan **asaldurak** dituzten pertsonei, hau da, medikuen zaintzapean dauden pertsonei.
 - **Gainpisua edo obesitatea** duten pertsonei.

5. ELIKAGAI DIETETIKOEN ADIBIDEAK:

Hurrengoak **609/2013 (EB)** legeria jarraitzen duten elikagai dietetikoak dira:

- Edoskitzaileentzako esne-prestakinak eta jarraipen prestakinak
- Pisuaren kontrol eta galerarako dietaren ordeztako elikagaiak.
- Zerealez osatutako edoskitzaileentzako edo umeentzako elikagaiak.
- Osasun helburu bereziak dituzten elikagai dietetikoak.

6. EDOSKITZAILEENTZAKO ESNE-PRESTAKINAK ETA JARRAIPEN PRESTAKINAK

Edoskitzaileentzako esne-prestakinak eta jarraipen prestakinak **12 hilabete baino gutxiago** dituzten umeentzako **elikagai likidoak** dira.

Edoskitzaileentzako esne formulek bizitzako lehen hilabeteetan zehar beharrian nutrizionalak asetzen dituzten elikagai bakarrak dira, eta elikadura osagarriarekin hasi arte erabiltzen dira, umeek **6 hilabete** betetzen dituzten **arte**.

Jarraipen faserarako esne formulak elikadura osagarriarekin hastean erabiltzen dira, umeek **6 hilabete** dituztenean eta **edoskitzerako dieta osatzen duten esne prestakinak** dira.

7. ZEREALEZ OSATUTAKO EDOSKITZAILEENTZAKO ETA UMEENTZAKO ELIKAGAIK

Zerealez osatutako edoskitzaileentzako eta umeentzako elikagaiak **<12 hilabeteko (edoskitzaileentzat) eta "adin txikiko" (1-3 urte) ume osasuntsuen beharrian espezifikoak asetzen dituzten prestakinak** dira, eta horretaz gain, **dieta osatu** eta dieta **progresiboki helduen dietara egokitzen laguntzen** dute.

Adibideak: zerealak (**papillak**), **potitoak:** barazki, fruta, haragi zein arrainez egindako pureak.

8. OSASUN HELBURU BEREZIAK DITUZTEN ELIKAGAI DIETETIKOAK

Medikuen zaintzapean dauden pazienteentzat bereziki ekoiztu diren prestaketek osasun helburu bereziak dituzte. Hurrengo egoeratan elikadura beharrianak erabat edo partzialki asetuko dituzte:

- Elikagaiak edota nutriente konkretuak (metabolitoak) irentsi, xurgatu, metabolizatu edo irazketarako gaitasuna mugatua edo erabat eragotzia daudenean.
- Klinikoki erabaki denean nutriente baten ekarpen gehigarria behar dela.
- Ohiko dieta bidez beharrianak asetu ezin direnean.

9. PISUAREN KONTROLA ETA GALERARAKO DIETAREN ORDEZKO ELIKAGAIK

Pisu galerarako balio energetiko baxuko dietetan erabiltzen diren produktuak formulazio berezi dute; eta era partzial edo total batean ordezkatuak dute ohiko dieta. Bi multzotan sailkatzen dira:

- Ohiko dieta erabat ordezkatuak dituztenak.
- Ohiko dieta partzialki ordezkatuak dituztenak.

10. LEGE-ESPARRUA

609/2013 (EB) legeak hurrengo produktuak arautzen ditu:

- Edoskitzaileentzako esne-prestakinak eta jarraipen prestakinak
- Zerealez osatutako edoskitzaileentzako eta umeentzako elikagaiak
- Pisuaren kontrol eta galerarako dietaren ordezkoko elikagaiak
- Osasun helburu bereziak dituzten elikagai dietetikoak

Reglamento (UE) 609/2013 del Parlamento Europeo y del Consejo de 12 de junio de 2013, relativo a los **alimentos destinados a los lactantes y niños de corta edad, los alimentos para usos médicos especiales y los sustitutivos de la dieta completa para el control de peso** y por el que se derogan la Directiva 92/52/CEE del Consejo, las Directivas 96/8/CE, 1999/21/CE, 2006/125/CE y 2006/141/CE de la Comisión, la Directiva 2009/39/CE del Parlamento Europeo y del Consejo y los Reglamentos (CE) Nº 41/2009 y (CE) Nº 953/2009 de la Comisión. DOUE 181 (29.06/2013).

11. LEGE ZEHATZIK GABEKO ELIKAGAIK

Hurrengoak **609/2013** arautegitik kanpo gelditzen diren elikagai dietetikoak dira:

- Pisu galerarako balio energetiko baxuko elikagaiak, hau da, eguneroko dietaren **otordu bat edo gehiago ordezkatuak dituzten produktuak** (baino ez dute dieta erabat ordezkatuak)
- **Umeentzako prestakinak:** hazkuntza esneak edo umeentzako esneak (“leche de crecimiento”)
- **Diabetikoentzako** elikagaiak
- **Jaioberri goiztiarrentzako** elikagaiak
- **Kirolarientzako** elikagai gehigarriak
- **Laktosarekiko intolerantzia** duten pertsonentzako elikagaiak

12. GLUTENAREKIKO INTOLERANTZIA DUTEN PERTSONENTZAKO ELIKAGAIK

Glutena garian, zekalean, garagarrean eta oloan dauden proteinek dute.

Glutenik gabeko elikagaiak 2 taldeetan banatzen dira:

- **GLUTENIK GABE:** < 20 mg/kg (ppm) gluten kopurua duten elikagaiak. Hauek *Codex Alimentarius* ikurra daramate:



- **GUTENEAN BAXUAK:** < 100 mg/kg (ppm) gluten duten elikagaiak. Hauek **FACE** ikurra dute.



Mota hauetako elikagaietan **bestelako aitormenak aurkitu** daitezke:

- “glutenarekiko intolerantzia duten pertsonentzako egokia”
- “zeliakoentzat egokia”
- “glutenarekiko intolerantzia duten pertsonentzako bereziki ekoiztua”
- “zeliakoentzat bereziki ekoiztua”

13. GLUTENAREKIKO INTOLERENTZIA DUTEN PERTSONENTZAKO ELIKAGAIEN LEGE ESPARRUA:

Lehen aipatu bezala, elikagai hauek 609/2013 arautegitik kanpo gelditzen dira baina hurrengo legeak bete behar dituzte:

- **Reglamento Delegado (UE) No 1155/2013** DE LA COMISIÓN de 21 de agosto de 2013 por el que **se modifica el Reglamento (UE) no 1169/2011** del Parlamento Europeo y del Consejo, sobre la información alimentaria facilitada al consumidor, **en lo referente a la información sobre la ausencia o la presencia reducida de gluten en los alimentos**. DOUE L 306 (16.11.2013)
- **Reglamento de Ejecución (UE) No 828/2014** DE LA COMISIÓN de 30 de julio de 2014 **relativo a los requisitos para la transmisión de información a los consumidores sobre la ausencia o la presencia reducida de gluten en los alimentos**. DOUE L 228 (31.07.2014)